

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Oso garrantzitsua da bezeroekiko harreman ona edukitzea, eurak baitira empresak aurrera jarraitu ahal izatea eragiten duten pertsonak, eta honegatik da horren beharrezkoa eurak gustura egotea eskainitako zerbitzuarekin. Arazorenbat izango balute produktuarekin(nahiz eta ez litzatekeen askotan gertatuko) hala balitz laguntza emango genieke. Gure kasuan, ohikoena zerbitzu automatizatua izango litzateke baina honen bidez ez balute arazoa konponduko laguntza pertsonala emango genieke.

Zerbitzu automatizatua, honela bezeroak bere arazoaren berri emango luke eta horren konponbidea zein den adieraziko lioke gure zerbitzuak, gainera ez genuke diru asko gastatukohonen bidez eta bezeroari bere arazoekin lagunduko genioke.



Hala ere teknologia berriak erabiltzen ez dakien jendeari edo arazoa konpondu ezin duen jendeari laguntza pertsonala eskainiko genioke. Gure langile batzuk produktuaren arazoak konpontzen espezializatuta egongo lirатеke, hauek elektrikariak edo ingeniero mekanikoak izango lirатеke eta hauek gure produktuan espezializatuko genituzke kurtso labur baten bidez. Honela edozein arazori aurre egiteko gai izango lirатеke.



Bezeroek asko eskertuko zuten eurenganako laguntza eta honek asko lagunduko lioke gure enpresak fama ona hartu dezan eta bezero gehiago lortu ditzan.